

ZUMALAKARREGI MUSEOA

Etengabeko hobekuntza egitasmoan lanean dihardugu pertsona guztiek museora sartzeko aukera izan dezaten. Atal honetan Irisgarritasun gaian egiten ditugun aurrerapen ezberdinak eguneratzen joango gara.

Gaur egun Museoaren Irisgarritasun egoera honakoa da:

SARRERA DOAN	HARRERA	APARKALEKUA
Desgaitasun egiaztatua duen pertsonak eta beraien laguntzaileak museora doako sarrera dute.	Kanpoko ateraren irekiera automatikoa da.	Museo ondoko aparkalekuan desgaitasun egiaztatua duten pertsonentzat aparkaleku plaza bat dago.
HARRERA-INFORMAZIO MOSTRADOREA	ORIENTAZIO PLANOAK	IGOGAILUA
Sarreran kokatutako informazio-mostradorean Museoko zerbitzuak, guneak eta jarduerak aurkezten dira.	Informazio-mostradorean planoak dago eraikuntzaren gune eta zerbitzu guztien direktorioarekin.	Goiko solairura igotzeko plataforma dago (225 Kg.).
ATSEDEN GUNEA	GARRAIO PUBLIKOA	
Bi solairuetan daude aulki edo besaulkiekin osatutako guneak.	MUGI Bide planifikatzailea. Gipuzkoako Garraioaren urralde Agintaritzak (GGLA-k) martxan jarri duen tarifa sistema bateratuaren bidez, Gipuzkoako garraio bide guztietan euskarri berdina erabiliz bidaiatzea ahalbidetzen duen sistema da Mugi.	




IRISGARRITASUN FISIKOA

MUSEORAKO SARRERA KALETIK IRISGARRIA DA GURPIL-AULKIENTZAKO. KANPOKO ATERAREN IREKIERA AUTOMATIKOA DA. MUSEOKO ZIRKULAZIO GUNE GUZTIAK IRISGARRIAK DIRA.

HARRERA-INFORMAZIO MOSTRADOREA	KOMUNA	ATEAK
Gurpil-aulkien erabiltzailentzako alturan eta espazioan egokitutako mostradorea dugu informazio irisgarriarekin. Egokitutako komuna, haurtxoei fardela aldatzekoa dauka.	Egokitutako komuna, haurtxoei fardela aldatzekoa dauka. Irristailudun atea du.	Harrera gunera eraikinaren sarrera bakarretik iristen da. Sarrera nagusiak bi ate ditu. Lehena, altzairua/kristala, beti itxita egoten da. Pasabideak 89 cmko zabalera du eta oso astuna da. Bigarrena, zurezkoa, beti zabalik egoten da eta 146 cmko pasabidea du. Lehen atean tinbrea dago eskura.
IGOGAILUA	LAGUNTZA TEKNIKOAK	
Goiko solairura igotzeko plataforma dago (225 Kg.).	Motrizitate finarekin zailtasuna duten pertsonentzako hainbat laguntza duen irisgarritasun kit-a.	



IKUS IRISGARRITASUNA

GUNEAK	ATEAK	ITSU-TXAKURRAK
Museoaren espazioak ondo argizatuta daude eta altzariak, oro har, solairu eta hormetatik nahikoa kontrastatzen dute.	Ateen eta paretan arteko kolore kostrastea handia da.	Itsu-txakurrak eta bere laguntzaileak museoan sar daitezke. 

LAGUNTZA TEKNIKOAK		
Ikusmen zailtasunak dituzten pertsonentzat lana errazteko hainbat laguntza duen irisgarritasun-kita		



ADIMEN IRISGARRITASUNA

BUKLE MAGNETIKOA	ZEINU HIZKUNTZA (ESPAINOLA)
Audifonoaren erabiltzaileak edo kokleako inplantea dutenentzat, Museoak, bukle magnetikoa du harrera mahaian. Gainera, bisita gidatuaren kalitatea hobetzeko harreran eskatu daiteke banakako bukle magnetikoa.	Adimen irisgarritasuna duten pertsonei egokitutako bisita gidatuak eskaintzen ditu museoak. Aurrez eskatu.



IRISGARRITASUN INTELEKTUALA

GUNEA	TALDEAK
Museoaren espazioak irekiak dira, ondo argizatuta daude eta bi solairuen arteko komunikazio bisuala ona da, honek klaustrofobia sentzazioa murrizten du.	Bestalde, irteera bi solairuetan oso argia da. Informazio gehiago: mzumalakarregi@gipuzkoa.eus

BISITA	KONTAKTUA
<ul style="list-style-type: none"> Zerbitzuak Ordutegiak eta tarifak 	Zumalakarregi Museoa Muxika Egurastokia 6 20216 ORMAIZTEGI (Gipuzkoa) Tf. 943 88 99 00 // 659 43 45 66 mzumalakarregi@gipuzkoa.eus

Museoko Irisgarritasun Programa [K6 Kultur Gestioa](#) enpresak sustatu du, [Elkartu](#)-rekin (Gipuzkoako Desgaitasun Fisikoa duten Pertsonen Federazio Koordinatzailearekin) eta beste gizarte-erakunde batzuekin elkarlanean.